ataria

KILOMETROAK URTEA

Gora Kilometroak!

San Bartolome, 2.
Ibarrako plaza

Tel : 943 67 11 38
udala@ibarra.eus

www.ibarra.eus

Ibarrako Udala

AURKIBIDEA

KILOMETROAK 2022

Lehendakariaren agurra 5
Aurkezpen ekitaldia 6-7
Irribarra denda 8-9
Infinitu Irribarra 10-11
Kilometroak Txikia 12-13
Bertso afariak eta
Herri kirol jaialdia 14-15
Munduko Gastronomiak
Ibarran Azoka 17-19
Kanpo espazioak amets 22-24
Milimetroak 26-27
Elkarrizketa,
Usue Sukia Zurutuza 29-31
Irribarra abestia 35-37
Ikasleen txokoa 38-41
Irribartea 42-44
Batzordeak 46-50
Izaskun Kultura 52-53
Datorrenari begira 54

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **Lege Gordailua:** SS-1323-2013 **Telefonoa:** 943 65 56 95
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez **Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete **Bezero arreta:** 943 30 43 46
Webgunea: ataria.eus **Posta elektronikoa:** ataria@ataria.eus **Irratia:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
Publizitatea: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:

Bertako hedabideak · galtzaundi · berria · Txolarre

Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.

Gipuzkoako Foru Aldundia

ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO atariako MATERIALA!

Deitu 943 65 56 95
edo pasa bulegotik!

KATILUA	BOTILA	POLTSA	PACK-A
Atarikideak: 9 euro.	Atarikideak: 9 euro.	Atarikideak: 8 euro.	Atarikideak: 20 euro.
Atarikide ez direnak: 11 euro.	Atarikide ez direnak: 11 euro.	Atarikide ez direnak: 10 euro.	Atarikide ez direnak: 26 euro.

Zein ederra izaten ari den!

AMAIA LASA MUÑAGORRI
UZTURPE IKASTOLAKO LEHENDAKARIA

Jada hilabete batzuk badira Ibarran ospatuko den Kilometroak jaiari hasiera eman geniola, iazko azaroaren 26an izan zen aurkezpen ekitaldiarekin.

Urduritasuna, zalantzak, ilusioa... erronka handi honi erantzungo al genion galdetzen genion geure buruari ikastolako bileretan. Eutsi genion ekimenari, ordea. Beti ere argi izanez Ibarrako herriaren Kilometroak izatea nahi genuela, herritar eta herriko eragileekin egindako bidea.

Gogo eta irrika horrekin hasi ginen. Gainera, Kilometroak berezia izango da, egun hau birmoldatzeko hausnarketen ondorengoko lehen egun handia. Bide honetan ikasitakoak jaso, elkarlanerako ereduak gureganatu eta ideia freskoak txertatuaz, lanketa berezi bat egin ondoren, urtea nola antolatu eta zein ekintza egin jorratzen aritu gara. Eta zein ederra izaten ari den, zein ederra izango den! Urte osoko ekimenaren erakusleiho izatea nahi dugu urriaren 2ko Kilometroak eguna ere.

Kilometroak urte honetan, gure ikastolaren balio eta ideia batzuei protagonismo berezia ematen ari gara. Batetik, Euskal Herriari zer garen erakusteko; bestetik, bide honetan aurrerapausoak emateko. Hala, berrikuntza, gastronomia eta kulturaniztasuna sakonki lantzen ari gara. Kilometroak berritzailea izango da aurtengoa, berrikuntza delako Uzturpe ikastolako ikur ere, metodologia ikuspegitik beti duelako ezinegona gauza berriak aplikatzeko. Bestetik, bertako jantokiari ere garrantzi berezia emango diogu, bertako produktuak sustatu eta inguruan eragiteko.

Ibarrako ikastolan duela 25 urte erabaki baitzen bertako sukaldaria jartzea, janaria bertan prestatzeko. Sukaldariak egunero erosketak egiten ditu herriko saltokietan, bertako ekonomia sustatuz. Beraz, Kilometroetan bertako jantokian egiten dugun lana islatu nahi dugu eta horretarako gastronomiak garrantzi handia izango du. Noski! Ibarrako bereizgarria den piperra ere ez da faltako, herriko baratzeek ere protagonismoa izango dutelarik.

Eta azkenik, gure Kilometroen ardatz nagusienetako beste bat, kultur aniztasuna da, jatorri desberdinetako jende asko dagoelako Uzturpe ikastolan eta hori oso aberatsa da; euskal kultura konpartitzeaz gain, beste kulturak ezagutu nahi baititugu. Eurak ere Kilometroen parte izatea dugu helburu.

«Kilometroetan bertako jantokian egiten dugun lana islatu nahi dugu eta horretarako gastronomiak garrantzi handia izango du»

Herria herriago egin nahi dugu Kilometroei esker, auzolanean, herritar guztiak elkartu eta gure onena erakutsi nahi dugu auzolan erraldoi honetan. Eskerrak ematea besterik ez zait geratzen: milaka esker urte osoan lanean ari diren boluntario guzti horiei.

FESTA BERRIA PIZTU ZENEKOA

Birusak gure etxeko ateak jo baino lehen, festa erraldoia eta bakarra ardatz zuen ohiko eredua atzean uzteko asmoa zegoen. Hamaika festa eta ekitaldik josita dago egutegia; 2022koa dugu, hain zuzen, aro berriko lehen Kilometroak.

Azaroko arratsalde hotz eta ilun bat zen, denok oraindik musuko baten atzean estaltzen gineneko bat. Baina kiroldegian bildutako jende andanak zera gogorarazi zigun: Kilometroak 2022ko aurkezpen ekitaldia burutzekoa zen. Ikastolako aitzindariek idatzitako gutun batek eman zion hasiera.

«Jakin bagenekien ez genuela ezer, baina, egin, egiten zen». Hitzok pantaila batean irakurri eta megafoniatik entzun zituzten Belabietan bildutakoek. 52 urte igaro dira lehen eskola haiek eman zirenetik. Diktadurapean landatutako haziak loratu duela berretsi zen. Antzerkia ikusteko parada izan zen, eta zuzeneko musika, eta dantza... Harmaila nahiz agertokian, ikasle, irakasle, guraso eta ikastolaren lagunek bat egin zuten.

Kilometroak 2022: zer eta nola? Ez zen erraza izan Gipuzkoako ikastolen jaialdi nagusiari erantzunak aurkitzea. «Emantzat ematen genituen gauza asko bertan behera bota dizkigu pandemiak», aitortu zuen Josu Ozaita Azpirozek. Ibarrako Uzturpe ikastolako ikasle ohia da 41 urteko ibartarra, bai eta Kilometroak jaiaren koordinatzailea ere. Antropologoa ere badela agerian geratu zitzaigun: «Hein handi batean, Kilometroak antolatzean festa, ospakizun bat sortzen da, eta zerotik», zioen ibartarrak, «erronka» eta «apustua» hitzak mahai gainean jarriz aldi berean. Horrek beldurra ematen zuela zioen. 2021ko udan, birusaren hedapena kontrolpean zegoelakoan, egutegi estu bat osatu omen zuen bere taldeak. Baina «seigarren olatua» deiturikoak jo eta hutsetik hasi behar izan ziren denak, beste behin. Larria ez dela pentsa liteke,

oraindik denbora egon badagoela urriaren 2a, «eguna», iritsi arte. Planteamendua, alabaina, zeharo desberdina da.

«Urriaren 2a egutegian dago, bai eta ordura arteko beste egun asko. Hauxe da, hain justu, aurtengo aldaketa nagusietako bat», azpimarratu nahi zuen koordinatzaileak. Kilometroak «kilolitroak» bilakatu zela zioen, «horrek denoi sortzen zizkigun kontraesan guztiekin». Honela, «eguna» heldu bitarteko mugarrien artean hamaika ekitaldi antolatu dira urtean zehar: herri kirolak eta bertso saioak; eskultura erakusketa bat (Euskal Herriko 41 eskultorek hartu dute parte); nazioarteko gastronomia aire zabaleko azoka, munduan zehar digitalki zabaldutako ekimena (beranduago hitz egingo dugu horretaz)... Horretan aritu dira, eta ari dira, 200 boluntariok sortutako talde bat. Ez da makala 500 ikasle dituen eskola txiki batentzat.

Patio bat amets

70eko hamarkadan sortutako ikastola gehienek bezalaxe, Uzturpek ere makina bat oztopori egin behar izan zion aurre orduan: administrazioaren trabak, baliabide ororen eza... Elizak utzitako lokal batean bildu ziren lehendabiziko 19 ikasleak, eta etxe bateko beheko solairuan gero, 1980an San Bartolome eskola publikoaren eraikin zaharrean instalatu ziren arte. Honela, lau hamarkada igaro dituzte Egi baserri alboan, Ibarra gaineko bista onenak dituen muino horretan. Uzturpeko zuzendari Usue Sukia Zurutuzak, baina, «borroka amaigabe» batez hitz egiten du.

«Lau urte beteko dira aurki ikastola eraldatzeko proiektuari ekin genionetik. Obra egiten ari zela, zimenduak ukitu ziren, istripuz. Egoera hain izan zen larria soldatak ordaintzeko arazoak ere izan genituela», gogoratu du 39 urteko emakumeak. Nolanahi, ez omen zen hori okerrena izan: ikastolako ikasleen erdiak barrakoi batzuetan jaso zituen eskolak, ia urtebetez. Bitartean, epaiek erabaki behar zuten horren kostua nork ordainduko. «Epaiketa irabazi arren, eraldaketa ez zen guztiz burutu eta laborategia nahiz patioa egin gabe gelditu ziren», damu du zuzendariak, zuloz jositako esparru batetik paseatzeko gonbita luzatu ostean. Ez da jolas egin, esperimentatu edota kirola egiteko toki aproposa, eta arriskutsua ere bada. Kilometroek emango duten dirua hura egokitzeko erabili nahi da. Zulo horiek estali orduko, hamaika ekimen eta emanaldi kateatuko dira. Horiek guztiek hazi bat landatuko dutelakoan dira ibartarrak.

irribarra

Galdu ez zen irribarrea

Erraza dirudi, baina makina bat buelta eman zioten kontuari: zein izan zitekeen Kilometroak festaren bere osotasunean jaso zezakeen leloa?

Taldea eztabaida bete-betean zegoela, batzordekide batek eguneroko kontu bati erreparatu zion: denak zeuden musukoa jarrita; ezin ikusi, beraz, irribarrerik. Lelo arrakastatsuekin gertatu ohi legez, hau ere bakar-bakarrik atera zen, ia nahigabe: Ibarra eta irribarrea lotzeak konbinazio ezin hobea ematen zion festa berriari.

Azken finean, Irribarra hazi bat da, zaindu behar dena, eta bere fruituak ematen ari dena. Ibarran, baratze herrian, irribarrearen haziak bota, eta elkar zaintzea: balioen hostoak, errespetua eta elkarbizitzaren loreak, eta ikasle aktibo eta kritikoen fruituak.

Lurra eta baratzearen marroia, bizitza eta piperraren berdea. Ibarran, irria, barra-barra: irribarra. Irribarrea galduta geundelakoan ginen, baino hor egon da beti. Oihal baten azpian bazen ere.

IRRIBARREAK SOINEAN

Irribarra arropa eta osagaiak sekulako arrakasta izaten ari dira. Euskal Herria kalean dagoen dendan edota 'online' erosi daitezke, baina ez hor bakarrik; boluntario sare zabalari esker herriz herri jarritako postuetan ere eskuratu daitezke.

Genero bereizketarik gabeko arropa eta osagaiak eskaintzeari jarri diogu azpimarra. Ibarrako Euskal Herria 7. zenbakian dagoen Irribarra dendak ez ditu bi gune berezitan banatzen nesken eta mutilen arropak. Ez ditugu genero estereotipoak indartu nahi, alderantziz, ideia hori irauli nahi dugu. Ez baitago identitate bakar bat. Norberak bere nortasuna du eta horren isla diren arropa eta osagarriak egin ditugu. Helduen arropek zuhaitz izenak dituzte, haurrenak zuhaixkenak, haur txikienenak loreenak eta osagarriek onddo edo perretxiko izenak dituzte.

Ohiko elastiko eta jertseak ditugu, baina baita txapelak, motxilak, petoak, poltsak edota berokiak ere. Azaroaren 26an aurkeztu genuen Irribarra denda. Euskal Herria kaleko 7. zenbakian dago eta betiko arropez gain, osagai berritzaileak ditugu. Kilometroak urterako diru ekarpen garrantzitsua ekartzen du *merchandising*-a, eta mimoz aukeratu ditugu arropa eta osagarri guztiak.

Gabonen bueltan ireki genuen denda eta eskertzekoa da oso Requejo familiak eskuzabal utzitako Sanbartolome denda zena. «Leku ezin hobean dugu denda, herriaren sarreran bertan. Plazera da hemen

egotea», esan du Maria Probanza Iturriozek. Auzolanean atondu genuen denda, guraso eta irakasleen artean, eta auzolanean egin ditugu txandak, eskaerak eta bidean sortu diren lan guztiak.

Talde bat baino gehiago ari da lanean. Erosketa taldea dago batetik, aterako ditugun produktuak aukeratzen dituzte eta eskaerak egin. Boluntario sare zabala du atzean, Kilometroen ikur den auzolana ardatz duena. Dendaren goiko pisuan biltegia dago eta bertan aritzen den taldeak etiketatze eta antolaketa lanak egiten ditu. *Online* salmentak beste lantalde bat du atzean eta irteerak antolatzen ere badabil beste talde bat. Bi arduradunek antolatzen dituzte irteerak eta horretarako maila bakoitzeko gurasoak dituzte lagun. Gipuzkoako beste ikastoletako familien laguntza ere badugu, eta oso eskertzekoa da hori.

Ezin ahaztu Tolosako Kaiz arropa garbitegia zena utzi digun familiarekin ere. Gure produktuak erakusteko aukera eman digu, hau ere leku ezin hobean.

PLAZATIK MUNDU ZABALERA

Euskararen aldeko milaka atxikimendu bildu ditu, mundu osoan zehar, Infinitu Irribarra egitasmo digitalak. Irribarreen atlas moduko bat egitea da asmoa eta pixkana-pixkana ari gara osatzen.

Euskara eta Euskal Herriaren aldeko irribarreak biltzea, eta planeta osotik; hauxe dugu, laburrean, aurtengo Kilometroetako erronketako bat. Egitasmoa iaztik abian dagoen arren, iragan martxoan eman zitzaion hasiera ofiziala. Donostiako Tabakaleran, bertatik nahiz *streaming* bidez jarrai zitekeen ekitaldian, Julen eta Antton Telleria kazetariek bat egin zuten Uzturpeko lau lagunekin egitasmoaren nondik-norakoak aireratzeko.

«Irribarre bat erakutsiz ageri diren pertsonen argazkiak bildu eta mapa digital batean kokatu nahi ditugu, milaka eta milaka irribarreen atlas moduko bat osatuz», zioen Uzturpeko irakasle Aitor Bengoa Ansak. Tolosar honen aburuz, Kilometroak jaiari atxikimendua emateko modu erraz bat da, «garai bateko jaia egunean biltzen zen jendetza horren bolumena eta indar erakustaldia birtualki erakusten duena, sasoi hauetan ezinezkoa baita jendetza biltzea». COVID garaiko neurriez ari zen.

Beste alde batetik, helburu ekonomiko bat ere aipa-

tu zuen boluntarioak: argazki horien inguruan, publizitatea txertatuz eta bidalketa egiten den unean, borondatezko diru ekarpen bat eskatzen da.

Irribarra da, hain justu, aurtengo Kilometroen leloa. «Irribarrea tapatuta, estalita eta ia galarazita izan dugun garai hauetan, inoiz baino behar handiagoa dugu berau egiteko eta erakusteko», zioen Usue Sukia Zurutuzak, Uzturpe ikastolako zuzendariak. Bera bezalako 200 boluntario ari dira lanean iaztik aurtengo Kilometroak burutu ahal izateko, baina pandemiak biziki oztopatu du haien lana. «Birusa kontrolatzeko neurriek hainbat egitasmo bota dituzte bertan behera, eta beste asko birplanteatu behar izan dira. Honek guztiak sekulako lan karga suposatu digu», aitortu zuen. Zailtasunak zailtasun, pozik dagoela dio. «Kilometroak jaiaren berrikuntzetako honek hamaika irribarre bildu ditu. Atxikimendua helarazteko modu ederra bezain erraza da, edonork eta edonon egiteko modukoa». Aipatutako erraztasuna Ikastolen Elkarteko informatikariei zor zaio.

Plataforma digitala hutsetik sortu zuten eta, mundu mapari eutsi ez ezik, publizitatea ere erakarri du ekimenak. Enpresek irribarreak «erosteko» aukera dute, bakarka egindako ekarpenei diru sarrera gehigarri bat batuz.

Egungo mugikorren puntako teknologiak argazkiak geolokalizatzeko aukera ematen du, eta makina bat dira Euskal Herriko mugetatik kanpo iritsitako irribarreak. Milaka dira. Honela, mundu mapa digital horretan Edurne Pasaban, Iñaki Perurena, Onintza Enbeita, Iker Irribarria eta beste aurpegi ezagun asko topatu daitezke, baina Parisitik helarazi zigun Itziarrek berea eta Himalayatik Goarrek; Armeniatik Kristinarena iritsi zitzaigun, bai eta Wailena Libiatik, Mollyrena Zeelanda Berriatik... Azken finean, hizkuntza guztiak legez, denon altxorra da euskara. Mundu osoarena.

«Atxikimendua helarazteko modu ederra bezain erraza da Infinitu Irribarra»

AITOR BENGOA ANSA

TXIKITASUNETIK

Komunitatea indartzeko eta ilusioa pizteko ekitaldia izan zen Kilometroak Txikia. Herrian bertan eta herritarrekin ospatuko genuen jai eguna eta batez ere, haur eta gazteak izan ziren protagonistak.

Pasa den martxoan ospatu genuen Kilometroak Txikia ekimen herrikoia. Festa kalera ateratzeko aukera izan genuen azkenean; ordura arteko ekitaldiak pandemiak baldintzatuta egin behar izan genituen.

Kalera atera genuen festa eta eguraldi txarrari ere irribarrea marrazten badakigula erakutsi genuen. Adin ezberdinetako ikasleek era askotako jolasak egiteko aukera izan zuten herriko txoko ezberdinetan. Parte hartze zabalean oinarritutako ekintza izan zen hori ere, auzolanari tiraka gauza ederrak egin daitezke, eta hori erakutsi genuen, beste behin ere.

Haurrei protagonismoa eman nahi izan genien eta hamaika joko eta jolas izan zituzten aukeran. Hasierako ekitaldian Ibarrako sokatira taldeko emakumeek Kilometroetako logoaren irudia igo zuten ikastolako eraikinean zintzilik jarriz. Hortik aurrera hasi zen festa. Haurrak adinaren arabera banatuta ibili ziren jolasetan parte hartzen. Tripa bete eta berotzeko aukera izan zuten ere, bai haurrek eta baita guraso,

irakasle eta boluntarioek ere. Joko eta jolasek bazuten beste helburu bat ere: mezu ezkutua bistaratzea plazan. Irribarra leloa izan zen aukeratutako hitza. Euskal Herriko Bilgune Feministak jarri zituen amaierako notak, festari kolore morea emanaz. Bukatu, herriko plazan argazki jendetsua aterata egin genuen.

Festa hori egiteko ere boluntarioen lana ezinbestekoa izan zen. «Ehunka boluntarioen laguntzaz baino ezin dira burutu honako hau eta ikasturtean zehar gauzatzen ari direnak», zioen DBHko irakasle Nagore Leon Plazak, herriko plazatik.

Eta ez da, inondik ere, erronka makala. «Pandemiak oztopo asko jarri dizkigu eta hainbat ekitaldi bertan behera utzi ditugu. Egutegia ixtea ez da erraza izaten ari, baina buru-belarri ari gara denok lanean», esan zuen.

HERRI KIROLAK PROTAGONISTA

Almintza sega elkartearekin elkarlanean, herri kirol jaialdiarekin itxi genuen martxoa. Sokatiran, trontzan eta aizkoran aritu ziren plazako estalpean eta elkartearen ibilbidea iruditan ikusteko aukera izan genuen.

Segalaritza udaberri eta uda sasoiko kirola da, baina historikoki neguko jaialdiak antolatu izan ditugu, negu partean elkarrekin biltzeko, eta aurten, Kilometroak Ibarran egingo direla aprobetxatuz jaialdia bertan antolatzea erabaki dugu», esan zuen Ainara Otamendi Almintza sega elkarteko kideak. Almintza urte askoan aritu da Kilometroetan parte hartzen eta oraingoan ere ez du hutsik egin nahi izan. «Jaialdi honen beste helburu bat Almintza sega elkartea ezagutaraztea ere bada, eskualdean segalari dezente gabiltza, eta segalaritzak nazioarteko lehia horretan egin duen lana izango dugu helburu, bideo bidez». Bada bitxikeriarik Almintza eta Ibarraren arteko harremanean: «Almitzak nazioarteko txapelketetan parte hartzen du eta kuriosoa da euskaldunok egin izan dugun posturik onena, lehen postua, ibartar emakumezko batek lortu zuela, 1999an, Eslovenian».

Jaialdian Ibarrako sokatira taldeak hartu zuen parte eta gainerako kiroletan emakume eta gizonek osatutako bikoteak aritu ziren nor baino nor. Trontzan Ainara Otamendi eta Mikel Lizartza, Jon Otegi eta Alaitz Imaz, Arkaitz Jauregi eta Uxue Ansorregi, eta Julen Gabirondo eta Irati Astondoa aritu ziren. Aizkoran, berriz, Julen Gabirondo eta Uxue Ansorregi, Mikel Jauregi *Altzo* eta Irati Astondoaren aurka aritu ziren. Ikuskizunaz gozatzera gerturatu zirenek ondoren egin zen afari herrikoian geratzeko aukera izan zuten gainera.

BERTSOLARIEN BUELTAN

‘Bertso afariak x 7 ekimen’ berezia izan genuen apirila hastearekin. Behin eta berriz errepikatu dugu auzolana eta eragileen elkarlanari esker ari garela ekitaldiak antolatzen, eta bertso saioetarako elkarteen laguntza eta babesa izan genituen.

Kilometroak ez zuen izan urte hasiera erraza. Pandemiaren eraginez hainbat ekitaldi birmoldatu behar izan genituen eta hasiera hartan ezinezkoa izan zen elkartu eta ekitaldi jendetsuak egitea, batez ere jan-edana tartean bazen. Halako batean pandemiak atsedenaldia eman zigun eta *Bertso saioak x 7* ekimena egiteko bidea ireki zitzaigun. Ez zen edonolako erronka; zazpi elkarte eta 14 bertsolari elkartu nahi genituen elkarteen bueltan. Laguntza jaso genuen orduan ere, eta Ibarra bertako Xepla, Sendi Ekintza eta Deportiba elkarteez gain, Gaztelu, Belauntza eta Leaburuko herritarren babesa eta laguntza jaso genuen. Baita oreretarrena ere, izan ere, 2023an bertan ospatuko dute Kilometroak. Apirilaren 1erako jarri genuen hitzordua eta eguraldiak ez zuen lagundu, elurra tarteko azkenean ezin izan genituen ospatu Oreretako ikastolak duen Añabitarte baserriko eta Belauntzako saioak, bai ordea beste bostak.

Bi urteko egoera gorriaren ondoren, garbi genuen euskal kultura plazara ateratzea beharrezkoa zela eta horregatik erabaki genuen bertso afariak antolatzea. Jendea elkartzeko gogoz zegoen, bertsozaleak bertsoen egarri eta gu Kilometroak zabaltzeko irrikan. Honela, jendeari luzatu genion gonbita deialdia bertsoez, lagunarteaz eta bertako gastronomiaz gozatzeko. Deportiba elkartean, Onintza Enbeita eta Anjel Mari Peñagarikano aritu ziren; Jon Maia eta Maialen Akizu Xeplan; Sendi Ekintzan Beñat Gaztelumendi eta Nerea Ibarzabal; Gaztelun Oihana Iguaran eta Sebastian Lizaso; eta Iker Zubeldia eta Nerea Elustondo Leaburun. Felix Aiestaran Ibarrako Uzturpe Ikastolako kideak azaldu bezala, ikastolara inguruko herrietatik haurrak joaten dira eta herri horiei bultzada bat eman nahi izan genien bertso afariak antolatuz.

Afariak bereziak izan ziren gainera, izan ere Irribarra menuak prestatu genituen, eta afaltiarrek bertako produktuekin osatutako jakiak dastatu ahal izan zituzten.

Jarraitu KILOMETROAK
...albisteak...argazkiak
bideoak...egitarauak...
elkarrizketak....
ataria
www.ataria.eus 107.6 fm

Tolosaldea BUS S L
INFORMAZIO BULEGOA
Barrena kalea, 3 ▪ TOLOSA ▪ 943 650 621
www.tolosaldeabus.net

2022/2023 IKASTURTEA
ERDI MAILAK
- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia eta parafarmazia
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta

GOI MAILAK
- Osasun dokumentazioa eta administrazioa
- Diagnosi irudia eta medikuntza nuklearra
- Gizarteratzea

943 67 36 29
www.inmakuladatolosa.eus

MUNDU BAT IBARRAN

Kilometroak 2022ko egitasmoaren berritzaileenetako bat atzerritik etorritako familiek burutu dute. Nazioarteko gastronomia azoka bilakatu zuten Ibarrako plaza: hamar sukalde eta hamaika istorio ezagutzeko parada ezin hobea.

Pentsa liteke atzerritarrak izatea dutela amankomunean, baina oso oker ginateke. Denek Ibarrako Uzturpe ikastolan dituzte seme-alabak, denak sartzen dira «ikastolako gurasoak» kategoria horretan. Kilometroak festa ikastolari egokitu zaionez, euren ekarpena ere egin nahi zuten: nazioarteko gastronomia azoka bat.

Nigeriako arroza pikantearekin hasi eta Hondurasko entxiladekin jarraitu; handik Marokora, bertako pastel gazi-gozoekin, edo kuskus-arekin, edo Nikaraguako *quesadillas* izeneko horiekin... Eta zergatik ez hartu tarte bat benetako ukrainar *pontxiki* gozoak dastatzeko? Eta kakaoa? Nikaraguatarrek diote euren «txanpona» izan zela hainbat mendez. Munduari bira eman genion arratsalde bakar batean, eta Ibarrako plazatik atera gabe.

Zalantzarik gabe, Kilometroak 2022ko egitasmoko talde bitxiena izango da honako hau: hamar hizkuntza, ala gehiago, biltzen ditu, eta gaztelania dute elkarri ulertzeko balio diena.

Etxea atzean uztea ez zen erraza inorentzat, ez eta Ibarrara iristea ere. Bidean zeharko oztopo eta mehatxuak ugariak dira eta. Neguko arratsalde batean, taldea lehendabiziko aldiz elkartu zenean, elkarri entzun genion. «Pakistandik Moskura jo nuen eta, handik, Berlinera trenez. Nola? Paperik gabe, jakina. Gehienok bezala», batek. «Hamabi egunez atxilotu ninduten Parisen eta anaiak 1.500 euro helarazi zion Polizia barruko mafia bati atera ahal izateko», albokoak. Gerta liteke Erdialdeko Amerikako paradisu batean jaiotzea –turismo agentziek iragartzen duten duten horietako batean– eta alde egin behar izatea. Paradoxa dirudi, baina ez da: turistek baino ezin dute bertan bizi.

Gerta liteke ere errefuxiatu gune batean jaiotzea, basamortuaren erdian, eta egoera hobetzeko perspektibarik ez izatea epe motzean nahiz luzean. Nikaraguan egoera «kritikoa» zela entzun genuen, eta Nigerian, eta Punjaben...

Uzturpeko irakasle Ixiar Urkola ase dago. Helburua zera da, harremanak sendotzea, elkar ezagutzea eta, honela, ikastolako aniztasuna azpimarratu. «Errealitate berria»ri ere seinalatu dio Urkolak, «aberatsa bezain konplexua» den horri. «Ikastola plazaren isla besterik ez da, gure gizartearena alegia».

Nadia Protsiuk (Ukraina)

«Esan liteke maitasunak ekarri ninduela Ibarrara, duela 11 urte. Nire senarra izango zena, ukrainarra ere, bertan zegoen. Bi ume ditut, Andriy eta Anastasia, biak ikastolan. Hemen jaioak dira, 4 eta 6 urte dituzte, baina oraindik ez dute beren aiton-amonak ezagutzeko parada izan. Baserri batean bizi dira, basoaren erdian; toki paregabea da, izugarri polita. Irrikan nago nire umeak hara eramateko baina oraindik ezin izan dugu. Txikiegiak ziren hasieran, eta gero beti egon da zerbait; COVID-ak eztanda egin zuen, eta gerrak jarraian... Udaberri honetan ginen joatekoak, baina planak bertan behera erori dira berriz. Kezkatuta ote nago-en? Jakina! Egoera honi ez diot irtenbide onik ikusten, baina ezin dut besoak gurutzatuta gelditu. Tolosaldeko beste ukrainar batzuekin bat egin eta Eslovakiako mugarantz jo nuen apirilean, Ukrainatik zetozen errefuxiatuei laguntzera. Ahal dudan guztia egiten ari naiz».

Ali Rajab (Pakistan)

«Ezagutzen duzu nire herrialdea? Han ez dago bizitzerik; ez dago lanik, ez justiziarik, ez berdintasunik... Garbi neukan atzerrira joan beharko nuela bizitza duin bat izateko. Ia 20 urte eman ditut hemen eta, egun negozio txiki bat daukat Tolosan, kebab jatetxe txiki bat. Aurretik toki dezentetan egin nuen lan: Logroño, Gasteiz, Eibar... Paperik gabe iritsi nintzen Europara; Moskun hasi eta sekulako odisea izan zen hura: mugak gauez zeharkatu mendietan zehar edo autoen maletategian ezkutatuta... giza-trafikatzaileen mende beti. Ez zegoen beste aukerarik. Pakistanen duela hiru urte izan nintzen azkenekoz eta aldaketak ikusi nituen, pittin bat modernizatu dela iruditu zitzaidan. Nire familia oso handia da eta han jarraitzen dute gehienek. Faltan botatzen ditut, jakina, baina bizitza hemen eginda daukat gaur eta bertan geratuko naiz. Hemen jaioak dira nire bi umeak eta pozik ikusten ditut. Horixe da inportanteena».

Marilet Flores (Nikaragua)

«Duela 39 urte jaio nintzen Ocotal hirian, Nikaragua iparraldean. *Pinudien hiria* ere deitu ohi zaio, eta tokia polita da oso. Langabeziak eta bestelako arazoek behartuta, Eduardo nire semearekin iritsi nintzen hona, duela 12 urte. Nire anaia Euskal Herrian zegoen, beraz, aukera errazena iruditu zitzaidan. Ez dut gogoratu nahi honainoko bidean pairatu nuena; ezin nuen imajinatu Pariseko aireportuko mafia baten biktima izango nintzela Europara iritsi bezain pronto... Eduardo ikastolan dago eta 15 urte ditu jada. Euskara ikastea garrantzitsua iruditzen zait, zoazen tokiko hizkuntza eta kultura barneratzea ezinbestekoa da integratu ahal izateko. Nik ere eskolak jasotzen ditut eta asko ulertzen dut. Hitz egitea, baina, gehiago kostatzen zait. Ziurrenik horretarako aukera izango dut azokan. Kakao edaria eta arrain koktel berezi bat prestatu ditugu azoka datozenentzat. Elastikoak atentzioa deitu dizu, ezta? *Baseball*-ekoa da, han asko jokatzen da eta».

Elezza Nakh (Sahara)

«Numak 8 urte ditu eta 5 Zinek. Hemen jaio ziren biak, Tindufetik 2005an iritsi nintzen eta. Saharar asko daude Euskal Herrian eta lotura oso sendoak. Euskara garrantzitsua da, eta ez bakarrik hemen integratzeko. Hassaniera da gure hizkuntza eta, euskararekin gertatu bezala, identitate ikur nagusietako bat da guretzat. Nire umeek hassaniera bezain ongi menderatzen dute euskara. Oso harro nago. Jakingo duzunez, Tinduf ez da gure lurra, ez eta gure arbasoena ere. Gure etxea zena, Sahara mendebaldea, marokoarrek kendu ziguten 1975an eta ordutik gaude erbestean, ezerezaren erdian. Tea ere garrantzitsua da guretzat, beste nortasun mugarri bat esango nuke, eta horrexegatik eskaini diegu gerturatu diren guztiei. Edariak baino, berau prestatzearen erritualak du garrantzia. Te inguruan elkartzen gara basamortuan eta, gaurkoan, horretarako ere balio izan du».

irribarra

abestia

Entzun

Ikusi

... eta dantzatu!

Irribarra

JANTOKIA

Abuztuaren 23tik 27ra, San Inazioa auzoan

Terraza, parrilla, otorduak eta musika

Kilometroak 2022

irribarra kilometroak 2022 Ibarra UZTURPE IKASTOLA

Uzturpe Ikastola

IBARRAKO UDALA
GIPUZKOA · EUSKAL HERRIA

«DENENTZAT DEN ESPAZIOA NAHI DUGU, ESPAZIOAK MALGUAGOAK BILAKATUZ»

NEREA ETXEBESTE AMENABAR
IRAKASLEA ETA DINAMIZATZAILEA

Kilometroak jaiak kanpo espazioa eraldatzea du helburu, ikastolako patioa moldatu eta aukera berriak sortzea. Batzorde bat ari da horren inguruan lanean, erabileraren azterketaren inguruan hausnarketa egiteko eta etorkizuneko eremua diseinatzeko.

Nerea Etxebeste Amenabar (1988) irakasle eta bertako dinamizatzailearekin bildu gara, patiora jaitsi eta ametsak marrazteko. Lau urte daramatza ikastolan, matematika, teknologia, fisika eta kimika irakasten, baina arkitektura ikasita, gaiak erakarri eta ardura hartu zuen.

Kanpo espazioaren antolaketak ere arkitekturarekin lotura du. Egia esan, arkitektura plano eta marrez harago doa.

Bai, argi eta garbi. Horregatik eman nuen izena, arkitektura eta hezkuntza uztartzen dituen gaia delako. Arkitektura da beharretik abiatuta diseinatzea. Alor teknikoarekin bat, sormen ariketa handia egoten da. Bertan egoten naiz egunero, eta beharrak oso presente ditugu.

Batzordean ari zarete lanean. Nortzuk osatzen duzue lantaldea?

Hamabi lagun gara, guraso eta irakasle artean. Hezkuntza munduko jendea gaude, baita dekorazioa edo arkitekturarekin lotura duten gurasoak ere.

Nolatan hasi zarete lanketa honekin?

Honekin Kilometroak hasi aurretik hasi ginen, pandemia baino lehen. Guraso talde batek eta ikastolako irakasleek osatzen zuten lehen lantalde bat, zeinaren helburua ikastolako espazioak metodologia berrietara egokitzea zen. Eraikinaren barrenean egin ziren al-

daketak, espazio handiagoak eginez, hormak bota eta kristalak jarriz, metodologia berritzaileetara egokitutako eraldaketa izan zen.

Kilometroak honetarako antolatzen ari zarete?

Ez zehazki. Eraikina mugitu egin zen eta gastu izugarriak zeuden: ikastolen elkarteko laguntza kutxara jo behar izan genuen. Diru hori itzultzekotan Kilometroak antolatu beharra genuela ikusi genuen. Eraikina mugitzeagatik eraikuntza enpresarekin epaiketa izan eta irabazi genuenez, Kilometroak jaiko dirua ikastolan inbertitu behar genuela sentitu genuen.

Barrukoa eginda, kanpokoa moldatu nahi duzue hortaz.

Bai, kanpokoa egin gabe, amaitu gabeko obra edo bidean gelditzearen sentsazioa dugu eta hori gauzatu nahi dugu.

Nola egin duzue lan?

Proiektu parte hartzailea egin nahi genuen, non ikasle, irakasle eta gurasoek parte hartuko zuten. Eragile desberdinen aldetik informazioa jaso dugu, batzordean asko hausnartu dugu eta gurasoekin kafe-tertulia bat antolatu genuen ere. Egia da azken horretan ez zela jende gehiegi azaldu, baina iritzi oso interesgarriak jaso genituen.

Behar hauek identifikatuta proposamena egin nahi dugu, eta irudikapen hori paperera pasa.

Obrak mantso joaten dira.

Bai, orain Kilometroen zurrunbiloan gaude, orain hori burutu eta dirua dugunean jakingo dugu zertaz eta nola hitz egin dezakegun.

Ikasleek zer diote?

Egin ditugu dinamika desberdinak, maketak ere egin dituzte. Nerabeek beraiek lasai egoteko toki babestuak irudikatzen dituzte, lagunartean egotekoak, umeek jolasteko espazioak nahi dituzte... bakarren batek igerilekua ere irudikatzen du. Baloia ere eskatzen dute, baina denentzat izan behar du espazioak, oreka bilatuta.

Patioa eraldatzea amets?

Bai, barrukoa eginda dago, kanpokoarekin amaituko dugu. Merenderoa daukagu orain, sekulako erabilpena ematen zaio. Patioa ere beste ikasgune bat izatea lortu nahi dugu. Espazio irekia izatea nahi dugu, denentzat balioko duena, denak sentituko direna identifikatuta espazioarekin.

Igasgelan ikasten da, patioan ere bai? Zein eragin ditu?

Bai, ikasketa etengabea da eta patioa oso inportantea da: harremanak, jokatzeko moduak... Gu jaisten garenean patiora, umeak beste modu batean aritzen direla ikusten dugu. Deigarria da. Espazio batek asko eragin dezake eta helburu horrekin egiten ari gara hau dena.

> «Ikastolarentzat ez ezik, herriarentzat espazio interesgarria lortu dugula ikusi nahiko nuke»

Futbola ere eskatuko dute...

Bai, eta ez dugu futbola kendu nahi, baizik eta zabaldu. Zergatik izan behar du zelai batean? Librean ere jolastu daiteke baloi batekin. Denentzat den espazioa nahi dugu, espazioak malguagoak bilakatuz.

Zer ikasi duzu prozesu honetan?

Ideia aberasgarriak jaso ditugu, jendearen artean hausnartzea polita izan da.

Eta egunean bertan zer egingo du zuen batzordeak?

Patioa gaur egun dagoen bezala erakutsi nahi dugu, eta iglu bat jarriko dugu orain arte burutu ditugun hausnarketekin.

Kilometroak urtea gogorra izaten ari da irakasleentzat.

Oso! –barreak–. Gure eguneroko lanari lan gehigarri handia gehitzen ari gara, eta horrek tentsio handia dakar.

Hurrengo urtean nola egotea nahiko zenuke?

Ikastolarentzat ez ezik, herri osoarentzat espazio interesgarri eta berezia lortu dugula edo bidean dela ikusi nahiko nuke.

Zer da Kilometroak hitz batean?

Ikaskuntza bat.

Pipar ibilbide bizia

Irailaren 24 eta 25ean

Musika

Historia eta anekdotak

Errituak eta ohiturak

Pipar bilketa eta dastaketa

Jarraitu Kilometroak jaiaren sare sozialak informazio gehiago jasotzeko

IBARRAN DET, DUT ETA DOT

Kilometroen festa erraldoi bakarra atzean utzi eta saretzean zein auzolanean jarri dugu azpimarra aurtengoan, eta nahi horri erantzunez Milimetroak ekimena izan dugu. Bi eskualde –Oarsoaldea eta Tolosaldea– eta ehunka ikasle batu ditugu.

Festa erraldoi bakarra atzean utzi eta saretzean zein auzolanean jarri dugu azpimarra aurtengoan; nahi horri erantzunez, Milimetroak ekimena jarri dugu abian. Herritik atera eta, Gipuzkoan ez ezik, Euskal Herri osoan zehar ere zabaldu gara. Hori egiteko bereziki ikasleen parte hartzean jarri dugu fokua, eta ikastolek duten kultur sorkuntzari plazak eskaini dizkiogu. Gainera, ikastolen komunitateak harremanetan jarri ditugu, horien parte hartze erreala sustatuz eta euskarari espazio berriak eskainiz hainbat kultur adierazpideren bidez, ahalik eta modu ludikoenean. Milimetroak da guzti horren emaitza eta datozen urteetan eskualde gehiagotara heltzea da gure asmoa.

Lehen Milimetroak jaia Oreretan egin genuen, bertan izango baitute Kilometroak urtea 2023an. Apirilaren 26an izan zen eta herrien zein herritarren burujabetzaren aldarria egin genuen. Eguna ere apropos aukeratu genuen. Gernika bonbardatu zutela 85 urte betetzen ziren eguna zen eta gazteek Picassoren *Gernika* artelanaren erreplika berritzailea egin zuten guztien artean. Oarsoaldeko hiru ikastoletako eta Ibarrako Uzturpe ikastolako 100 bat ikasleren topaketa artistiko horrekin ireki genuen eguna eta herriko hainbat

musikarik, dantzarik eta Orereta ikastolako ikasleek ikuskizuna eskaini ziguten. Bakearen aldeko milimetro txiki bat egin nahi genuen historian izandako gerrez eta egungoak aipatuz. Artelana esaldi bat baino gehiagorekin osatu genuen: *Gerra hilketa masiboa baino ez da*, *Hilketa ez da aurrerapena*, *Atzo Gernika, gaur Ukraina...*, eta *Dirudunak gerra eragiten duten bitartean herritarrak dira sufritzen dutenak*, esaterako.

Bi eskualdeak batuz Ibarran izan genuen Tolosaldeko Milimetroak maiatzaren 20an. Elkar ezagutzea genuen helburu eta, bide batez, batzen gaituena aldarrikatu. Euskal Herri osoko 400 bat ikasle batu ziren Ibarran. Gehienak gazteak ziren oso; gehienek ere, lehendabiziko aldiz bertaratzen ziren gure herri txikian.

Ibarra Euskal Herriaren hauspo bilakatu zen horretan, bazter guztietako ikasleak izan genituen Ibarran. Talde bakoitzak hamar joko burutu zituen eta, horretarako, ezinbestekoa zen elkarlana, elkarri entzutea, elkar ezagutzea... Lehia egon zen, baina ez irabazlerik ez eta galtzailerik ere. Batzen gaituena azaleratzea zen helburua eta, aldi berean, horren aldarria egitea. Izan daitezela bi Milimetroak hauek bide luze baten hasiera.

400
ikasle

Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Ibilaldia eta Herri Urrats jaien atzean buru-belarri daudenak etorri ziren Ibarrara, eta baita Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Behe Nafarroako ikastoletako ikasleak ere. Saretzean sekulako saltoa eman genuen.

URKAZ
eraikuntzak

Okobio, 52 20491 • BELAUNTZA • Tel.: 943 670 445 • info@urkaz.com

www.urkaz.com

Zatoz Tolosako zure dendara (San Frantzisko, 19) eta eskuratu 30na euroko bi erosketa-bale, bat zuretzat eta bestea zure lagunarentzat.

euskaltel

«JENDE ASKO, ASKO ETA ASKO ARI DA IKUSTEN EZ DEN LANA EGITEN»

USUE SUKIA ZURUTUZA
UZTURPE IKASTOLAKO ZUZENDARIA

19 ikaslerekin hasi zen Uzturpe ikastola 1970. urtean, eliza alboko lokalean. 52 urte beranduago, ia 500 ikasle eta 73 langile ditu. Usue Sukia Zurutuza (Tolosa, 1982) da zuzendaria gaur egun, eta urte berezi honetan, bere bizipenak eta hausnarketak jaso nahi izan ditugu.

Hasteko, Usue, nola doa Kilometroak urtea?
Gogorra, polita... denetik pixka bat. Emozioz oso gorabeheratsua izaten ari dela sentitzen ari naiz.

Kilometroak antolatzea erabaki zenutenean, halakoa espero al zenuen?
Egia esan, ez nekien garbi non sartzen ari ginen. Gainera, erabaki genuenean pandemiarik ez zegoen, eta egin kontu nola aldatu den egoera. Momentu batean ez genekien urte hau ere nolakoa izango genuen, eta tartean, egutegia baldintzatu diguten hilabete zailak izan ditugu. Orain, berriz, aukera berriak eta politak sortu dira aurrera egiteko.

Zergatik eta zertarako antolatu Kilometroak Ibarran?
Hasieran zergatia eta arrazoia oso lotua zegoen ekonomiari: momentu oso gogorrak bizitzen ari ginen ekonomikoki, ikastolan egiten ari ginen obran izan genuen istripua dela eta. Hori konpontzeko diru asko behar genuen. Hasiera batean ikastolen elkartasun kutxaren laguntza eskatu behar izan genuen, eta zorionez horri esker egin genuen aurrera. Hala ere, uste genuen diru hori itzuli egin behar genuela. Argi genuen gure lanari esker atera behar genuela ikastola aurrera: horregatik hartu genuen Kilometroen antolakuntza.

Ekonomikoaz gain, interesgarria iruditzen zitzaigun komunitate bezala ere lanketa egiteko aukera emango zigulako, eta herri bezala ere, ikastola kokatzeko aukera zelako.

Herri txikia izanagatik ere, erronkari eutsi zenioten.

Herri txikia gara, ez gara asko, eta hala ere eutsi genion, aurrera egitea gure ardura zela uste genuelako. Beharra ikusi genuen garaian, ilusioarekin hartu genuen.

Herriari bizia eman diozue neurri handi baten, ekimen uholde bat etorri da 2022 urtean.

Bai, Kilometroei esker hainbat ekimen jarri dira martxan. Kilometroei esker, pentsatzen jarri gara, baina baita herriko eragile desberdin asko ere, eta hori pozgarria da: denok elkarrekin pentsatzen jartzea. Gero, egoera hobetu da eta bestelako ekimenak ere antolatu dira. Biek eragin dute.

Herriko eragileek parte hartu dute. Hori polita da, ezta?

Hasieratik partekatu genuen beraiekin zein zen gure asmoa. Ideiak jaso genituen herritar desberdinengandik, eta gero, plangintza osatu genuen jasotako guztiari forma emanez. Eta hortik harago ere, oraindik proposamenak etortzen ari zaizkigu, eta hori pozgarria da, oso.

Gurekin eta denok bat eginda parte hartzea, hori da politena.

Herritarrak ere parte hartzen ari dira antolaketan. Uste bezainbeste edo gutxiago?

Agian batzuen parte hartze gehiago espero nuen, baina beste batzuetan, harritu ere egin naiz zein jendek hartu duen parte ikustean. Kanpora begira ikusten dena eta barrura begira dagoena askotan ez datoz bat: jende asko, asko eta asko ari da ikusten ez den lana egiten. Askotan ez da atzeko lan hori ikusten.

Esaterako, Irribarra denda irekita dago urte osoan boluntarioen lanari esker. Ordu mordoa dago horren atzean. Hor atzean dagoen lana ikaragarria da, eta baita ekimen guzti hauek antolatzeko ere, edota Tanta zozketako txartelak saltzen... Ikaragarria da ere familiak egiten ari diren ahalegina denda postua beste herrietan jartzeko. Aipatzekoa da ere ikastolako langileak egiten ari diren esfortzu gehigarria urte berezi honetan.

> «Herritarren ideiak jaso genituen eta jasotako guztiari forma emanaz osatu genuen plangintza»

Zer da Kilometroak eredu berria, motzean azalduta?

Aurten egiten ari garen hau. Gurea hau izango da, hurrengoa ez dakigu. Eredu berria hori da, herri bakoitzak bere eredua sortzea, bere baldintzei egokitua.

Eredu berriak zer beharko lukeen? Urte guztian ikusten ari garena: kulturari plaza ematea, elkarlana, parte hartzea, elkar ezagutza, auzolana... hori guztia.

Lortu duzue nahi zenutena?

Ez dakit, saiatzen ari gara behintzat. Adin guztientzat egin nahi genuen eta momentu askotan ez zaigu erraza egiten ari... gure aisialdi eredua ukitu nahi dugu, baina oso ohituta gaude molde batzuetan lan egitera, eta molde horiek puskatzea zaila da. Ez dakit dena puskatu behar den ere. Behintzat buruari eragiten ari gara, eta hausnartzen modu zabalean. Prozesu hori ere interesgarria da. Etengabe ari gara jartzen mahai gainean zer-nolako jai eredua nahi dugun. Hori ere bada eredu berria: hausnartzen jarraitzea.

Zer arrasto nahiko zenuke uztea Kilometroek Ibarran?

–Segundo batzuk isilik– Gutxienez, elkarlanerako ohitura batzuekin jarraitzea gustatuko litzaidake. Orain tarte bat izan dut geratzeko, eta atzera begiratuaz eta egiten ari garena ikusiz, nik uste sentsazio onekin amaitzeko moduan izan gaitezkeela. Eta sentsazio horrek jarraitzea nahiko nuke, gauza asko egin ditugu gure neurrian eta gure erara. Tolosaldeko Milimetroak ekimenean adibidez, ikasleak izan dira protagonista ea hori bada indartu nahi genuena.

Egon da ekimenen bat oilo ipurdia jarri dizuna?

Oilo ipurdia? –barreak– bat baino gehiagotan gozatu dut egia esan. *Bertso afariak x 7* ekimenean asko go-

zatu nuen, inoiz ez nuen parte hartu halako ekimen batean ordu arte, eta ikaragarri gozatu nuen. Asmatu genuela iruditzen zait.

Tolosaldeko Milimetroak ekimenarekin ere, aipatu moduan, oso pozik nago, eta Irribartean erakusketako aurkezpena ere berezia izan zen, baita berak dakarrena ere (ikasleekin lanketa, eta abar). Izaskun Kultura ekimena izan da azkena, eta oso berezia izan zen.

Zure bizitzan zein arrasto nahiko zenuke uztea, edo, zer ikasiko duzu aurten?

Prentsaurreko eta elkarrizketak emateaz gain, ikasi behar dudana edo nahiko nukeena argi daukat: ikasi nahiko nuke dena ez hain barru hartzen, gauzak patxada handiagoarekin bizi eta lanari neurria hartzen. Ikasketa zaila baina helburu hori jarri dut.

Amaitzen ari gara, eta galderen zailtasuna igoko dugu. Zer da Kilometroak hitz batean?

Jaia esango nuke, erantzun errazena delako. Baina ez zait hitz hori etortzen, Kilometroekin datorkidana *elkartasuna* da.

Urriaren 3-ra egingo dugu salto: titularra hitz gutxitan.

–Irribarra egin eta pentsakor jarrita– Gipuzkoako jai arrakastatsua aurtengoan, urte guztiko ekimenen ondoren, urriaren 2ko egunarekin borobildu da urtea.

Urriaren 2an, non egongo zara edo zertan topatuko zaitugu?

Egun horretan nonbait kokatzen ikasiko beharko dut, izaeragatik toki guztietan egon nahiko dut eta: dena egin nahian eta denean laguntzen egon beharra sentituko nuke, baina lasai hartzen ikasi behar dut. Goizean protokoloan egongo naizela pentsatzen dut, baina gune desberdinetan egotea ere gustatuko litzaidake ikusle edo parte hartzaile moduan.

Gozatu!

Jada ari naiz sentitzen sekulakoa egiten ari garela eta uneoro asmatzen ez badugu ere, tarteka gelditu eta hori baloratu behar dugu.

HERRI GUZTIA KORAPILATU ZUEN PROIEKTUA

1970. urtean hasi zuen ibilbidea Uzturpe ikastolak. Gurasoen lana ezinbestekoa da gaur egun, baina zer esanik ez lehen urte horietan. Seme-alabarik ez zuten herritarrek ere ordaintzen zuten kuota.

Gure ikastolak 52 urte ditu. 19 ikasle zituen proiektua indartu eta egonkortu da urte hauetan guztietan, eta orain proiektu sendo bat da; 500 ikasletik gora ditu eta 70 bat langile. Kopuruetatik harago, herri guztia barnebiltzen duen ikastola da gurea eta harro gaude.

Atzera begira jarriz gero, lehen andereño haien eta gurasoen lana gogoratu behar dugu, baina egindako lan horrek ez zuen etorkizunik izango herri guztia korapilatu izan ez balitz. Guraso «ausartak» izan zituen ardatz Uzturpe ikastolak, baina ez bakarrik: «Ikastolarena proiektu garrantzitsua zen eta herri guztiak babestu zuen». Eugenio Lopetegi gurasoaren hitzak dira, lehen urte haietan lanean buru-belarri aritu zen gurasoetako bat. Uzturperen 50. urteurrenean mahainguru berezia izan genuen kultur etxean. XX. Kultur Astearen barruan ikastolaren sorrerari buruzko solasaldia egin genuen eta lehen guraso eta irakasleek hartu zuten parte, pasarte politak gogora ekarriz.

1970. urtean hasi zuen ibilbidea Uzturpek eta Bittori Olaetxea izan zen lehen andereñoa. Lizartzarrak gogoratu zuen garai hartan ikastola pila bat ari zirela loratzen eta apaizak izan zirela «euskararen beharrarekin gogoa piztu zutenak». Urrian ireki zuten ikastola. 19 ikasle ziren eta irakasle bakarra. «Eliza ondoan hasi ginen eta handik lauzpabost urtetara etorri zen bigarren andereñoa». Haur guztiak mailaz maila mahaika antolatuta jartzen zituen gela batean, baina 1974ean haur gehiegi zirela eta, Roxario Lizarralde laguntzaile lanetan aritu zen. 1975ean bi gela osatu zituzten eta Patri Zabala berastegiarra hasi zen lanean, bigarren andereñoa. «Berastegitik etorri nintzen apaiz batek gonbidatuta. Berastegin 4 urtez aritu nintzenez esperientzia banuela edo, eta Ibarrara etorri nintzen», gogoratu zuen Zabalak.

1976. urtean Zume etxeko behe solairuan beste gela bat zabaltzea lortu genuen, eskolaurreko hiru mailak osatuz, eta urtebete beranduago Ibai Gaineko gelak prestatu zituzten Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko lehen maila martxan jartzeko. 1980. urtean Egiko eraikinera joan ginen, Eskola Publikoarekin batera, eta 1984. urtea mugarria izan zen, lehen promozioak OHOko 8. maila amaitu baitzuen. Garaipen txikia zirudiena, garaipen handia zen. Ikuskariak, erakundeak... ez zen erraza izan ikastolaren jarduna justifikatu eta aurrera egitea, eskerrak guraso, langile eta herritarren babesari. «Guk eskulana jartzen genuen eta udalak hainbat baliabide. Dirua nondik? Ez geneukan laguntzarik eta zozketetarako txartelak saltzen genituen, taberna jartzen genuen... diru asko ateratzen genuen horrela lan eginda. Inplikazio handia zegoen herrian. Gurasook bakarrik ezin genuen aurrera egin eta jende

askoren babesa jaso genuen. Ikastolak gauza asko barnebiltzen zituen, kultur mailan eta alor askotan zuen potentziala. Asanbladak egiten genituen eta oso jendetsuak izaten ziren. Gazteak, gurasoak, herriko eragileak.. jende asko biltzen ginen», gogoratu zuen Lopetegik.

Gurasoek lan handia egin behar izan zuten, baina baita irakasleek ere. Ez zegoen ikasmaterialik, guztia zegoen egiteko. Ikastaroak jasotzen zituzten, materiala prestatzen zuten, banatu, inprimatu... «Gaur egun konturatzen gara ez genuela ezer, baina orduan gogoa genuen eta ez genuen hori ikusten». Miren Maite Ibarguren irakasle eta zuzendari ohiaren hitzak dira.

Lehen urte horietan ikastolan ikasitakoa nola legeztatu zen arazoetako bat eta horregatik zioten irakasle ohiek gurasoak oso ausartak izan zirela, egoera horretan egonda ere seme-alabak ikastolara eramateko apustua egin baitzuten.

Ezaugarri berezi asko ditu Uzturpek, horietako bat da gaur egun herriko ikastetxe bakarra dela eta beraz, herriko haur eta gazte gehienek ikasten dutela bertan, komunitatea indartuz. Garai hartan Eskola Publikoa ere bazegoen, baina gerora desagertu zen. Uzturpek zuen beste ezaugarrietako bat kuotak zirela gogoratu zuen Lopetegik. «Ibarran kuotak baxuak izan zitezen saiatu ginen. Oso garrantzitsua zen guretzat. Ez genuen eskola elitista bat nahi. Herri osoak jartzen zuen kuota, baita seme-alabarik gabekoek ere. 1981. urtera arte ez zegoen diru laguntzarik eta guztia guk egin behar genuen».

Gaur egun, Usue Sukia Zurutuza da ikastolako zuzendaria eta orain ere duela 52 urteko inplikazio eta elkarlana dagoela dio. «Gure ezaugarri nagusia gertutasuna da, eta ezin dugu galdu», esan zuen mahai-inguruan. «Gurasoak oso harro daude oraingo ikastola ikusita», gaineratu zuten irakasle ohiek.

HAINBAT PASARTE

1976. Zume etxeko behe solairuan beste gela bat zabaldu genuen, Eskolaurreko hiru mailak osatuz.
1977. Ibai Gaineko gelak prestatu eta OHOko lehen maila martxan jarri genuen, hiru ikasturtetan OHOko gelak lokal horietan egon ziren.
1980. OHO mailak eraiki berria zen Egiko ikastetxera joan ziren, Eskola Publikoarekin batera.
1981. Eskola Publikoak erabiltzen zituzten plazako geletan Eskolaurreko maila guztiak bildu genituen.
1984. Lehen promozioak OHOko 8. maila amaitu zuen.
1990. Plazan udaletxea eraiki behar zenez, Eskolaurreko gelak San Inazio auzora pasa genituen.
1992. Batzar orokor batean ikastolako Hezkuntza Proiektua onartu zen.
1993. Irakaskuntzako sare pribatuan jarraitzea erabaki zen.
1994. Haur Hezkuntzako taldeak Egira etorri ziren eta autobusa eta jangela zabaldu genituen.
1997. DBH martxan jarri genuen.
1998. Kilometroak antolatu genituen Anoeta eta Tolosako ikastolekin batera.
1999. Ikasle talde batek DBH 4. mailako ikasketak amaitu zituen lehen aldiz.
2001. Udalarekin lankidetzan Haur Eskola eta ludoteka zabaldu genituen.
2004. Kultur Elkarte izatetik Guraso Kooperatiba bihurtzeko erabakia hartu genuen.
2008. 2 urteko gelak ikastolaren egituran sartu ziren.

PERU

Indusketa / Eraikuntza

www.perusl.es

Errotaldea industrialdea , I pabiloia
Tlf: 943 65 37 21
20.270 Anoeta (Gipuzkoa)
obras@perusl.es

AENOR Gestión Ambiental ISO 14001 · IQNet · AENOR Empresa Registrada UNE-EN ISO 9001 · IQNet

Zero kilometro abestia

Badugu kanta. Herritik, bertatik eta aniztasunetik ari gara urte honetan, eta hori guztia islatzen du Irribarra abestiak. 'Ibarra da Irribarra. Euskara da, ikastola gu gara' diote Maider Eraunzetamurgil Elustondo eta Ane Zubia Aranaldek prestatutako hitzek.

Hitzordu benetan berezia aukeratu genuen Irribarra kanta eta bideoklipa aurkezteko. Ikasle ohien bazkari jendetsua izan genuen eta hori bukatuta, herritar guztiak bildu genituen herriko elizan bideoklipa eta abestia lehenengoz entzuteko.

Eliza lepo zegoen eta bertan aurkeztu genuen «herritik herrira, bertatik bertara» egindako bideoklipa. Izan ere, lanketa horretan parte hartu duten guztiak dira bertakoak. Musika sortzen Enrikko Rubiños Rezola aritu zen eta hitzak Maider Eraunzetamurgil Elustondo eta Ane Zubia Aranaldek jarri zizkioten. Abeslaria Eneritz Jauregi Lopetegi da eta musikariak ere gertukoak izan dira; Unai Artola Eguren baxuan aritu da, Saioa Ugowe Balza teklatuan, Ander Zubillaga Artano gitarran, Rubiños bera baterian, Jon Gar-

mendia Anfurrutia albokan, eta Rubiños eta Garmendia txalaparta jotzen.

Grabazio eta nahasketak Bonberenea estudioan egin dituzte, Karlos Osinaga *Txap*-ekin. Eta bideoklipari dagokionean, produkzioaz eta edizioaz Arri Studioa arduratu da.

Abestiak badu koreografia ere eta herriko Alurr dantza taldea arduratu da. Zeinu hizkuntza ere ageri da bideoklipean eta Julia Rodriguez Rojok, Maddi Ibarburu Romonk eta Aransgi elkarteak hartu dute horretarako ardura.

Hezur haragitzen den txorimalo bat da bideoklipeko protagonista, eta panpina sortzen Aloña Peñagarikano Mujika aritu zen. Mugimendu artistikoa Nagore Leon Plazak eman zion eta Uxue Murua Renobalesek gorpuztu zuen azkenean. Guztiak bertakoak, etxekoak, *kilometro zero*.

Esan bezala, Enrikko Rubiñosek ondu du kanta eta oso esperientzia polita dela dio. «Lehen aldia izan da abesti bat hasieratik bukaeraraino neronek egin dudana. Vendettan eta La Topadoran, esaterako, konposizioak eginda etortzen ziren eta bururatzen zitzaizun detaileren bat eransten nion, baina pisu guztia neure gain hartzen nuen lehen aldia zen. Hasiera batean kezkaz begiratu nion proposamenari, baina erantzunarekin gustura geratu naiz. Hori bai, sekulako ekipoa izan dut aldamenean, musikari onak izan ditut ondoan». Lan asko egin dute abestia egiteko eta lantaldea pozik dago emaitzarekin. Bejon deizuela!

Momentu politak utzi zituen hitzorduak eta espero dugu aurrerantzean ere, abestia entzuten duzuen guztietan, Irribarra urtearekin islatu nahi ditugun balore eta ideia guztiak sentitu ahal izatea eta dantzan jartzea.

Irribarra

Metro karratu ikusezinetatik
Lurra landuz eskuez, bihotzetatik
Etorkizunaren lehen sustraietik
Kimu bihurtu gara hazi txikitik

Kimu bihurtu gara hazi txikitik
Herritik
Bertatik

Ibarra da
Irribarra
Irriz ase alaitasun beharra

Ibarra da
Irribarra
Lehena, oraina eta biharra

Ibarra da
Irribarra
Euskara da, ikastola gu gara

Ibarra da
Irribarra

Munduko mila txokoetatik dantza
Aniztasunak onarpenean datza
Ez al da ingurugiro aberatsa,
Gure mila koloretako baratza?

Gure mila koloretako baratza,
jolasa, ardatza

Ibarra da
Irribarra
Irriz ase alaitasun beharra

Ibarra da
Irribarra
Lehena, oraina eta biharra

Ibarra da
Irribarra
Euskara da,
ikastola gu gara

Ibarra da
Irribarra

Ibarra da
Irribarra
Irriz ase alaitasun beharra

Ibarra da
Irribarra
Lehena, oraina eta biharra

Ibarra da
Irribarra
Euskara da,
ikastola gu gara

Ibarra da
Irribarra

Euskaraz mintzatzen

Testu honetan nire uhinez hitz egitea gustatuko litzaidake, hau da, nire pentsamenduetaz: zer da niretzat euskara? Eta Korrika?

Hasteko, nire buruaz azalpen labur bat emango dut, eta, ondoren, euskararen inguruan dudan iritzia emango dut. Amaitzeko, Korrikaren inguruan ere aipatuko ditut hainbat gauza.

Maddi dut izena, 15 urte ditut eta Belauntza izeneko herri txiki batean bizi naiz. Nire burua definituko banu, pertsona alaia, eskuzabala, atsegina eta nahiko lotsatia naizela esango nuke.

Egia esan, euskal hiztuna izateaz harro sentitzen naiz. Nire ama-hizkuntza euskara da, beraz, hizkuntza honekin hazi eta hezi naiz. Era berean, euskara hizkuntza oso polita dela iruditzen zait, hizkuntza berezi bat da niretzako. Esate baterako, hitz askoren atzean esanahi bat ezkutaturik egotea gauza interesgarria iruditzen zait.

Euskara hitza entzundakoan kolore berdea etortzen zait burura, Euskal Herria mendiekin, zelaiekin, zuhaitzekin edo laburbilduz, naturarekin erlazionatzen dudalako. Nire egunerokotasunean euskaraz mintzatzen naizenez, euskaraz amesten dudala ere esango nuke. Halaber, *euskara* hitza aipatzerakoan, naturak dituen soinuak entzuten ditut: txoriak, zuhaitzen hostoak mugitzen, haizea... Baina, batez ere, trikitixak sortzen dituen melodiak gogorarazten dizkit euskarak.

Hau alde batera utziz, Korrikaren inguruan hausnartzea gustatuko litzaidake. Korrika bi urtez behin euskara bultzatzeko egiten den ekimena da, eta Euskal Herri osotik ibilbide bat egitean datza, lekukoa herriz herri pasatzen, gelditu gabe.

Korrika hitza entzutean hainbat hitz edota gauza datozkit burura: lekukoa, Korrikako furgoneta eta *tipi tapa Korrika*, adibidez. Bestalde, *Korrika* hitza

entzundakoan furgonetan jarritako abestiak, pertsonen pausoak, eta jendearen arnasestua dira entzuten ditudan soinuak.

Alde batetik, poza transmititzen didaten hitzetako batzuk *lagunak*, *familia*, *lasaitasuna*, *horia*, *udara*... direla esango nuke. Bestetik, badaude zenbait hitz tristura ere transmititzen didatenak, *heriotza*, *grisa*, *euria*, *bakardadea*, *beldurra* eta *iluntasuna*, adibidez. Ildo beretik, *energia*, *motibazioa* eta *ausarta* hitzek indarra transmititzen didate.

Egia esan, ez dut topatzen niretzako berezia den hitzik, baina lehen aipatu dudan bezala, badaude hitz batzuk nahiko bitxiak iruditzen zaizkidanak, haien esanahiekin jokatzeko eragatik. Adibidez, *hilerria* hitza *hildakoen herria* hitz-jokoa osatzea bitxia iruditzen zait. Beste adibide aipagarrietako bat *maitemindu* hitza izan daiteke, eta honek *maitasuna* eta *mina* hitzak nahastuz hitz-joko bat osatzen du.

Amaitzeko, testu honek bai euskararen eta bai Korrikaren inguruan hausnartzera bultzatu nau.

Esandako arrazoiengatik euskara hizkuntza bereziki garrantzitsua da niretzat.

Nire ama-hizkuntza izateaz gain, aurrez esan bezala asko gustatzen zait euskaran, hitzek esanahi handia dutela, edota esanahiekin jokatzeko era.

«Testu honek bai euskararen eta bai Korrikaren inguruan hausnartzera bultzatu nau. Euskara hizkuntza bereziki garrantzitsua da niretzat»

Maddi Jauregi

Euskararen xarma

Zer da da zuretzat euskara? Galdera honek erantzun desberdin asko eduki ditzake; bada munduko beste hizkuntza bat soilik kontsideratzen duena, beste batzuk aldiz, Espainia barruko hizkuntzarik politenentzat hartzen dute, baita Frantzia barrukoa ere. Hori dela eta, zer da zuretzat euskara? Galderari beste erantzun posible bat emateko, honi buruzko nire iritzia plazaratuko dut azalpen testu honetan, galdera apur bat hedatuz.

Nire ustean, euskara nortasun handiko hizkuntza bat da, hizkuntza preindeuropearra izateaz gain, oraindik ezin izan direlako honen sustraiak aurkitu. Bestalde, euskara, Euskal Herria bezalako historia askoko herrialde bati identitatea ematen dion alderdia da. Hori guztiagatik, euskal hiztunok oso pertsona pribilegiatuak garela deritzot, gurekin batera, altxor bat eramaten baitugu. Hala eta guztiz ere, euskal hiztunok presio handia ere badugu, Euskara hizkuntza txiki eta gutxitua denez, bizirik jarraitzea gure esku baitago. Horregatik, Euskal Herri guztian zehar, ekintza asko egiten dira euskara sustatzeko; horietako bat, Korrika. Hori dela eta, Korrika entzutean *euskara* hitza datorkit burura.

Euskarak oso giro herrikoia du, beraz, hau definitzeko musikaren bat hautatzekotan, edozein herritako jaietan jartzen duten kanturen bat hautatuko nuke. Era berean, euskara zaporeren batekin erlazionatu beharko banu, hainbat herriko jaietan egiten dituzten txistorra taloekin erlazionatuko nuke.

«Euskara hizkuntza liluragarria bezain berezia iruditzen zait, eta bereziki gustuko dut euskarazko hitz batzuen konposaketa»

Euskara hizkuntza liluragarria bezain berezia iruditzen zait, eta bereziki gustuko dut euskarazko hitz batzuen konposaketa, hitz horietako bat, maitemintzea da, hortaz, ez dut hitz hori galtzerik nahi. Beste alde batetik, desagertzea nahiko nukeen hitz edo esaldi bat *maite zaitut* izango litzateke. Nahiz eta lehenagoko hitzaren antzekoa izan, hau batere gustuko ez dudan hitz edota esaldi bat da belarrira egiten duen efektuagatik; pertsona bati maite duzula esatea jada zaila egin badaiteke, *maite zaitut* hitzek are eta zailago egiten dute hau esatea. Horrez aparte, euskara oso hizkuntza aberatsa izan arren, irainen mira du. Nahiz eta hitz hauek itsusiak iruditu, onartu beharra dago egunerokoan erabiltzen diren hitzak direla, eta euskararen irain eskasia dela eta, hauek, beste hizkuntza batzuetatik hartzen ditugu. Euskarako hitzez hitz egiten, badaude poza transmititzen didaten hainbat hitz, *bizipoza* adibidez. Izan ere, honek duen esanahiaz gain, oso hitz borobil eta gozoa iruditzen zait. Badira gaziak iruditzen zaizkidan hitzak ere, *zukua* besteak beste. *Zorrotza* hitz garratz bat iruditzen zait, honek duen tz-gatik eta *hodeia* berriz, hitz leuntzat dut, bokal askoren elkarketak eragin hori baitu nire ikuspuntutik.

Laburbilduz, euskara hizkuntza xarmangarri bat ez ezik, bizitzeko era bat ere bada eta horrek horrela jarrai dezan, denon artean indarrak batu eta gure hizkuntza baloratu eta babestu behar dugu.

Amaiur Lasa

Artea, euskara eta irribarra

Sortu berri den Euskal Eskultoreen Elkartea lagun, Irribartea erakusketa jarri genuen kultur etxean. Formatu txikiko 41 eskulturekin osatutako erakusketa kolektiboa izan zen.

Euskal kulturaren atal garrantzitsua den eskulturaren lanketari eta hedapenari lekua eman nahi izan diogu. Irribartea formatu txikiko eskulturen bilduma osatu eta Benito Izagirre Kultur Etxean jarri genuen ikusgai. Artea, euskara eta Irribarra uztartu nahi genituen .

Felix Aiestaran ikastetxeko irakaslea, Guillermo Olmo eskultorearekin eta Migel Zeberio musikariarekin jarri zen harremanetan, eta elkarlan horri esker sortu zen Irribartea. Azken Muga ekimeneko antolatzaileak dira Olmo eta Zeberio, eta ekimenaren edizio batean, euskal eskultore ugariren formatu txikiko lanak bildu zituzten, erakusketa bat osatzeko. Horrela sortu zen Ibarran antzeko zerbait egin eta Kilometroekin uztartzeko ideia. Lankidetza izan zen ekimen honetako ardatzetako bat beste behin, eta inaugurazio egunean Alurr taldeko dantzarien laguntza izan genuen ere, *Eskulturak* dantza ikuskizuna eskaini ziguten.

Eskultura desberdinez osatutako erakusketa kolektiboa osatu nahi genuen, eta horretarako sortu berri den Euskal Eskultoreen Elkartearekin jarri ginen harremanetan.

41
Eskultore

Euskal Herriko 41 eskultoreren eskulturak bildu genituen Irribartea erakusketan. Irribartea ordea, ez da bilduma soil bat: plangintza didaktikoan txertatutako ekimena da eta sorkuntza du ardatz. Urriaren 2an ere izango du lekua.

«Kilometroak festaren mezua eta irudia diren Irribarra leloa eta logoa gai bezala hartuta, eskultoreei obra txikiak egitea proposatu genien», adierazi zuen Nerea Mendizabal Arburua Irribartea batzordeko arduradunak. Artistei proposamena bidali ostean erantzun zabala jaso genuen. Azkenean, 41 eskultoreren lana bildu genuen.

Batzordeko kideak «oso gustura» azaldu ziren bildumarako jasotako lanekin: «Arte plastikoa zeinen hizkuntza aberatsa den erakusten du, gai berdinaren inguruan jaso daitezkeen emaitzak askotarikoak direla, alegia. Izan ere, irribarrea adierazteko milaka modu daude, eta hauek, horietako batzuk besterik ez dira. Niri oso interesgarria iruditzen zait, besteak beste, belaunaldi eta genero desberdineko artisten erakusleihoa delako». Gure asmoa ekimen honetan ere bertakoari lekua egitea zen, eta jakina, herriko bertako edo inguruko herritako artisten lanak biltzeko ahalegina egin genuen. Azkenean, hiru ibartarren eskulturak lortu genituen.

Euskal Eskultoreen Elkartearekin batera osatutako erakusketa izan zen eta guk ere euren nahiarekin egin genuen bat: gizartea sentsibilizatzea. Horretarako, eskultoreen elkarteak hezkuntza sistematik ekitea erabaki zuen eta horregatik erabaki zuten Kilometroekin lotutako erakusketa osatzea.

Bilduma osatzea ez zen gure asmo eta nahi bakarra, dena den, sorkuntza eta artea ikasleen artean zabaldu nahi genuen eta horregatik inguruko herrietako ikastetxeei erakusketara goizez gerturatzeko gonbita luzatu genien.

Espero bezala, Uzturpe ikastolako ikasleak bertan izan ziren eta erakusketan parte hartu zuten zenbait eskultoreren laguntza ere jaso genuen. Mikel Mendizabal donostiarrak formazio saio bat eskaini zien irakasleei, arte-hezkuntzaren inguruan. Alderdi pedagogikoari dagokionez, ikastolan dagoeneko eskultu-



ra unitate didaktiko modura lantzen dugu DBH-ko 1. eta 2. mailan, eskulturaren historia eta euskal eskultoreak nahiz teknika eta material ezberdinak ezagutzeko. «Maila teorikoa lantzen aritu gara orain arte, eta aurrerantzean, eskultoreekin batera, tailerrak egingo ditugu», diosku batzordeko arduradunak.

Unitateari amaiera emateko, ekainean, ikasle bakoitzak bere eskultura proposamen txikia aurkeztu du ikasturte amaierako lan bezala. «Erakusketan bere lanak jarri dituzten eskultoreei luzatu genien galdera bera luzatuko diegu: nola adieraziko zenuke Irribarra eskultura bidez?», esan du Nagore Leon Plaza batzordeko kideak. Horiek horrela, ikastolan lantzen ari diren kanpo espazioaren eraldaketako abiapuntua ikasleek Irribartea egitasmoaren barruan sortu dituzten eskultura ideiak izango dira, eta ikasleek hainbat sortzaileren laguntza izan dute gainera.

Irribartea ekimena ez da hemen bukatzen eta Kilometroak egunean, urriaren 2an, eskultura gunea jarriko dugu, haurrek eskultoreekin batera material desberdinak sentitu eta landu ditzaten. «Sormenerako espazioa izango da. Umeek material desberdinez eskuak zikinduaz, eskulturak ezagutu, ukitu, landu eta osatuko dituzte», azaldu du Leon Plazak.



10k kutxabank

HEMENDIK:

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folioa, 1. Inskripzioa.

AUZOLAN ERRALDOIA

Ia 200 boluntario urte osoan lanean eta 11 batzorde dozenaka azpibatzordeetan. Egitura handia sortzen da Kilometroak urtea eta eguna antolatzeko.

Ikasle eta langileek euren denborako ordu ugari eskaintzen dituzte kolektiboa eta herrigintza hauspotuz. Urte betea izaten ari gara eta boluntario asko behar dira guztia egiteko.

Betekadak egon dira, alferkeria uneak ere bai, *zertarako sartu gara honetan* galderak ere... baina horiek ezereztatzean, plazera, zerbait polita elkarrekin egitearen sentsazioa eta *ze ondo ari garen!* baieztapenak gailentzen dira. Eta aizue, ze polita den Kilometroei esker jendea elkar ezagutu dela ikustea, elkarlanean sentitzea. Eta Uzturpe ikastolak eta herriak nekatuta amaituko dugu, baina zenbat gauza ona aterako ditugun horretatik, denbora luzean iraungo duen irribarrea tarteko.

MAIER IRAZUSTA AGIRRE
HEZKIDETZA BATZORDEA

Maier Irazusta Agirrerekin egon gara kafe makinaren bueltan tertulian Hezkidetza Batzordearen inguruan, eta batzordearen inguruan galdera informalak egin dizkiogu, eta Kilometroen aukerez solastu.

Zer da hezkidetza?

Uzturpe ikastolan lanean hasi nintzenean lankide kuttun batek irakatsi zidan moduan, *kontua ez da berdinak izateko eskubidea izatea, desberdinak izateko eskubide bera izatea baizik*. Hezkidetza/ inklusio batzordearen helburua horixe ulertaraztea litzateke.

Eta nola lortu genezake?

Kilometroak guztiontzako izango den Irribarra urtea da, gizartea aberasteko aukera, familia-bizitzan, hezkuntzan, lanean, festa egunean eta, oro har, gizarte, kultura eta komunitate-prozesu guztietan aktiboki parte hartuz. Orain artean ezkutuan izan ditugun irribarre guztiak erakutsiz Kilometroak egunean ere.

AITOR BENGOA ANSA
KOMUNIKAZIO BATZORDEA

Azpitalde desberdinak dauzka: prentsa bulegoa, argazkilariak, sare sozialen kudeaketa, diseinua eta kartelgintza, pegada taldea, dekorazio taldea denda, ekimen eta prentsaurrekoetako taldea. Eta berrikuntza bezala, Infinitu Irribarra batzordea. 20 lagun lanean, eta egunari begira taldea indartzearen beharra.

Aitor Bengoa Ansarekin egon gara, biologia irakaslea izatez, baina denetik egiteko abilezia duena.

Zer da Kilometroak bi hitzetan.

Jaia eta lana.

Lan asko aurten...

Bai, sukaldeko lan asko dago batzorde honetan.

Zer ikasi duzu, Aitor?

Komunikazio eta hedabideen mundua oso konplexua dela eta asko aldatu dela. Sare sozialen protagonismoa handia da eta komunikabideen transformazio garaia ere bada.

Zein ekimen gustatu zaizu edo zeinen zain zaude?

Munduko Gastronomiak Ibarran Azoka asko gustatu zitzaidan. Gure egunerokotasuneko kulturartekotasuna herriko plazan erakutsi genuen modu erakargarrian. Urriaren 2aren zain nago...

Urriaren 2an non eta zertan egongo zara?

Komunikazio batzordeko taldea koordinatzen nik uste. Komunikabideekin egon, argazkilariak koordinatu... ondo komunikatzen ari garela baieztatzen.

Komunikazioa ezinbestekoa, ezta?

Bai, eta maila ezberdinetan: barne komunikazioa, herri edo eskualde mailakoa, eta nazionala bestea. Eta bakoitzak bere ezaugarri eta formatu propioak ditu.

Urriaren 3ko titularra 3 hitzetan.

Kilometroak berritua Ibarran.

HANOT KARRERA AMONDARAIN
ESPAZIOAREN ANTOLAKETA BATZORDEA

Espazioaren antolaketa, labur esanda, puzzle bat da. Ekintza edo ekitaldi jakin baterako beharrezkoak diren elementuak (agertokia, mahaiak, aulkiak, karpa...) espazio jakin batean kokatu eta muntaian aritzea. Eta puzzle horretan, Hanot Karrera Amondarain gurasoa besteren artean.

Zenbat langile zaudete?

27.

Asko?

Bai, trafikoa, segurtasuna, muntaia... jende asko behar da.

Baina nola egiten duzue lana?

Gure betebeharra ekitaldi aurretik dena muntatu eta ondoren dena desmuntatzea da.

Zer moduz zabiltzate?

Jendea lanerako gogarekin eta prest dago. Ez daukagu kexatzerik, egia esan.

Saltsa ere gustatzen zaizu...

Gehiegi! Gehiegi...

Kilometroak egunean muntaia erraldoia.

Bertigoa ematen du, baina aurretik lanak ondo egitea da gakoa. Jendea aportatzeko gogoarekin dago eta ondo aterako da.

Kilometroak hitz batean nola laburtuko zenuke?

Auzolana.

Zer eman dizute Kilometroek?

Lanean jendea ezagutzea eta lagun berriak egin ahal izatea.

IXIAR AMONDARAIN LIZARRIBAR
KULTURARTEKOTASUN BATZORDEA

Ikastolako berezitasuna dugu bertako kultur aniztasuna. Errealitate hori landu, goxatu eta Kilometroen islada izateko batzordea osatu genuen. Prozesu polita izaten ari da eta Ixiar Amondarain Lizarribar irakaslearekin honen berri izan dugu.

Zergatik batzorde hau?

Aukera ona da ikastolako errealitate honi modu egokian erantzuteko.

Nortzuk osatzen duzue?

Jatorri desberdinetako gurasoek, irakasleek, herritarrek, eta Gaztezulo, Auzoko eta Zutani elkarteetako ordezkariek.

Nola azaldu zer den Kilometroak etorri berri bati?

Euskara eta euskal kulturaren aldeko festa handi bat, Euskal Herritarrek batera partekatzen duguna eta ekonomikoki gure proiektuaren lagungarri dena.

Nola sentiarazi parte?

Beste gurasoei bezala lanerako gonbidapena eginez. Hala sentituko dira bertako partaide eta guk ere hurbilago sentituko ditugu. Denok helburu bera dugu, dirua lortzea denon seme-alabak gustura jolastu daitezen patioan.

Munduko Gastronomiak Ibarran Azoka berezia izan zen. Zer azpimarratuko zenuke?

Gure arteko elkartasuna eta ilusioa.

Zer ikasi duzu azken hilabete hauetan?

Guztiok garela pertsonak, bakoitza bere gustu eta berezitasunekin, eta elkar zaindu behar garela.

Kilometroak ondoren, zer?

Bide honek jarraipena izan behar duela argi ikusten dugu, talde bikaina osatu dugu eta herri mailan giro hori txertatzen ari gara. Horri eutsi behar diogu herri bezala ere.

AITZIBER LIZARTZA ETXEBESTE
PREBENTZIO ETA OSASUNA BATZORDEA

Kilometroak egunean gazteek kontsumo arduratsua burutu eta festaz gozatzea dute helburu. Aitziber Lizartza Etxebesterekin egon gara berriketan, irribarrea artean.

Prebentzioa. Zer prebenitu?

Aurreko urteetako joera aldatzea. Gazteek kontsumo arduratsua izan dezaten lortzea, modu honetan festaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Eta nola egiten da hori?

Ikastetxeekin lanketa bereziak burutuko ditugu, aurretik egina zegoen O*ndo pasa, pasatu gabe* unitate didaktikoari materiala gehitu diogu, *podcast* eta komikiak. Agipad elkarteak formakuntza emango die irakasleei, eta DBH 1etik 4ra lanketa egingo dute ikasgeletan. *Irri eta farra, goza irribarra* lema sortu dugu.

Eta egunean bertan?

Laguntzaile figuraren aldeko apustua egin dugu. Besoko batzuekin identifikatuta egongo diren 20 urte inguruko gazteak, festan egongo direnak, baina prestutasuna dutenak beharra duen gazteari esku bat botatzeko. Besoko honekin ezagutu ahal izango dituzte, gelan landuko baitute gaia irailean. Laguntzaile hauek ere Agipad-en eskutik formakuntza jasoko dute betebehar honetarako urrian.

Kilometroak. Arriskua ala aukera?

Ondo pasatzeko aukera da, baina aldaketa gabe zailagoa dena. Neurrian kontsumitzea eta festaz gozatzea bilatu behar dugu.

Talde polita osatu duzue. Ezagutzen zineten?

8 laguneko talde anitza osatu dugu. Egia da gehienok erizainak edo medikuak garela, baina alor desberdinetan aritzen garenak. Talde polita da eta gustura ari gara.

Egun handia ere iritsiko da.

Prebentzioa landuta orain Osasuna dator. Gure betebeharra egunean bertan osasun arreta egoki egoki bat ematea da. Honetarako osasun guneak jartzeko lekuak aukeratu eta hornitzea izango da. Bai behar adina erizain eta medikuez, eta baita material aldetik ere. Egunean bertan osasun zerbitzu ezberdinen arteko komunikazio eta koordinazioa ere lotu beharko da.

Zein titular irakurri nahiko zenuke urriaren 3an?

Festa arrakastatsua, irri eta farra, barra-barra. Artatu beharreko gazte kopuru oso-oso baxua izan denez, primerako eguna.

JON MINTEGIAGA OIARBIDE
AUZOLAN BATZORDEA

Aldian aldiko ekimenetarako boluntarioak lortzea eta beste batzordeekin komunikazio zuzena izatea beraien giza-baliabideen beharrak asetzeko. Hiru lagun ari dira hori koordinatzen. Hau da Kilometroen indar berezia, boluntarioena

Auzolana ez dago modan. Ala, bai?

Lan batzuk erakargarritasun handiagoa dute, eta lanaren arabera errazagoa da jendea elkartzea. Beste batzuetan, aldiz, zailagoa.

Jende asko behar da.

Kopuruak handiak dira, eta aurten gainera, urte osoan barreiatuta. Horrek jendeari konpromiso gehiago eskatzea esan nahi du.

Boluntarioen artean ere, maila desberdinak bereiziko nituzke: egun puntualetan laguntzeko jende asko dago. Badaude kopuru txikiagoan, ia beti prest daudenak.

Kalabazak jasotzen dira?

Kalabazak jasotzen dira, baina prestutasun faltagatik baino, egutegia okupatuta izateagatik: behar den egun horretan beste plan bat izateagatik. Ez da nahi ez dutelako, ezin dutelako baizik; askotan.

Nola zaudete antolatuta?

Hiru lagun gaude, eta bilera informalak egiten ditugu. Askotan plazako tabernako terrazan, umeen zaintzarekin batera.

Boluntario izan nahi duenak, nola eta non apuntatu daiteke?

Webgunean aukera dago edo guri pertsonalki esanda. Ikastolara deituta ere jarriko gara harremanetan gero.

Zer eman dizu Kilometroak antolatzeak edo parte izateak?

Aukera bat bezala bizi dugu, duela 24 urte izan zen azkenekoa, pentsa! Lan karga eta estresa ditu, baina gustura aritu gara eta zortedun sentitzen gara aukera hau izateagatik. Gainera, Kilometroak eredu berri honetan gure ekarpena egiteko aukera dugu.

Kilometroak hiru hitzetan?

Aldarrikapen egun handia.

SAIOA MENDIA USABIAGA
JASANGARRITASUN BATZORDEA

Festa eta ekimenak antolatzeak zaborra eta kutsadura sortzea ere esan nahi du, baina gaiaren kudeaketak ondorio batzuk edo besteak izan ditzake. Jai jasangarria izatea du helburu Kilometroek, eta horretan ari dira lanean, beraien begirada ahalik eta transbertsalena bilakatzeko. Saioa Mendia Usabiagarekin aritu gara tertulian.

Batzordea osatzea kostatu da.

Bai, asko, baina orain batzordea osatuta dugu eta martxan jarri gara.

Teoriatik praktikara salto egitea kostatzen zaigu?

Jasangarritasun ikuspegitik kostatzen da: erosoagoa izaten da beste praktika batzuk egitea eta lana suposatzen duelako jarrera jasangarria hartzeak. Baina merezi du, eta esfortzu txiki batekin, ez da horren zaila.

Ze helburu dituzue batzorde bezala?

Kilometroak honek, ahalik eta inpaktu txikiena eragitea orokorrean.

Jasangarritasunetik zein amets dituzue?

Gure ekintzek ingurunean ahalik eta gutxiena eragitea, bai zabor aldetik eta baita garraiobide edo espazioaren erabilpenaren aldetik ere.

Praktikan nola egiten da hori?

Antolatzen den ekintza ororen gainean egon eta begirada hori jarrita. Eta lortu nahi den horretan bidea eginda.

Kilometroak egunean zertan islatuko da jasangarritasuna?

Egun handi horretan bertan, azpimarra berezia jarriko da *zero zabor* helburu horretan, hau da, ahalik eta zabor gehiena birziklatzea, eta ahalik eta hondakin gutxien sortzea. Horretarako material berrerabilgarriak lehenetsiko ditugu, ondo birziklatzea bermatuko dugu, iturriko ura banatu... eta bestetik, jendeari deialdia egingo diogu garraiobide publikoan etorri edota bizikleta erabiltzeko.

Animatu esaldi batekin jendea zuekin lan egitera.

Egun polit horrek emaitza politak eman ditzan lan egingo dugu elkarrekin. Merezi du. Zuen lanari esker inpaktu gutxiago izango du jaiak.

MAIDER LOPETEGI NIETO
IKUSKIZUN BATZORDEA

Pisu handiko batzordea da ikuskizunena, ekintza guztietan dagoelako. Ikusgarriena eta egitarauari lotua. 15 lagun ari dira bertan lanean urte osoan, ekintzaren arabera azpi-batzordeetan antolatuta.

Ikasle ohia eta egun irakaslea den Maider Lopetegi Nieto elkarrizketatu dugu.

Zer da Kilometroak hitz batean?
Elkarlana.

Zuena da batzorde ikusgarriena.
Bai! Egia esan ekitaldi guztietan gaude.

Festazaleen batzordea da zuena?
Kar kar kar... Denetik! Ameslarion gaude, bai eta errealitatera jaisteko bidaide ditugunak ere.

Festa eta festa?
Ez da erraza izaten ari guk festa egitea. Lan asko dago ekimen bakoitzaren atzean. Hala ere, lana bai, irribarrea ere bai.

Ekimen bereziak egin dituzue. Gustukoena?
Aurkezpen ekitaldia oso berezia izan zen. Abesti eta bideokliparen aurkezpenak ere oso ziraragarriak izan ziren.

Egun handia badator...
Herrian jarriko ditugun gune desberdinetan lan asko egongo da eta herritarren laguntza ezinbestekoa izango da.

Zer arrasto utziko dute Kilometroek zuregan?
Txikiak izan arren, urte potoloa aurrera ateratzeko gaitasuna. Ahal dugula erakutsi dit.

MAIDER PEREZ ZABALA
EKONOMIA BATZORDEA

Dimentsio ekonomiko guztia kudeatu eta bideratzeko batzordea da hau, Kilometroetako administrazio eta kontu ekonomikoen erabaki gunea. Maider Perez Zabala arduradunarekin hitz egin dugu sos kontuez.

Pisu handiko batzordea eta gainera hasieran dirua gastatu behar...
Hasieran bertigoa ematen du, zenbaki gorriekin hasten da, minus eta minus... pixkanaka buelta ematen hilabete batzuen ostean, eta gaur egun, zenbaki berdeetan gaude eta lasaiago.

Zenbat lagun zabiltzate?
Ba 50tik gora. Denda, tanta, publizitatea... enpresa handia gurea, kar, kar, kar...

Dendak ere arrakasta handia izan du.
Bai! Oso polita izan da. Lehen egun haietan, auzolanean itsura berria eman genion Manolik utzi zigun lokalari. Guraso, guraso ohi, irakasle... ilusio handiarekin aritu ginen. *Online* denda ere martxan dugu eta Tolosan erakusleiho bat arropari ikusgarritasuna emateko.

Urte osoan denda irekita boluntarioekin. Ez da erraza hori halako herri txiki batean...
Hasieran ez nuen espero eutsiko genionik. Jendea gogotsu hasi zen, tandak egiteko gogoarekin, baina urtea luze jotzen duenez, beldurra bagenuen jarraipena izango ote zuen. Ekainean gaude eta ondo! Jada amaiera ikusten da eta beteko dugu erronka. Esan ere, denda dagoela, baina atzean biltegi taldea, astero poltsak prestatu eta desegiten egoten dira...

Jende asko!
Bai! guraso ohi, guraso, ikasle, ikasle ohi, irakasle ohi, herritar... horiek denak gabe ezinezkoa. Nekatuta gaude, baina polita izaten ari da.

Zertarako da dirua?
Instalakuntzak hobetzeko: batetik, kanpo espazioa eraldatu, eta bestetik, laborategia berritzearen ideia ere hor dago.

Zer eman dizu saltsa honek?
Bizipoza! Eta herriko jende desberdinarekin topatu eta elkarlanean aritzeko aukera. Ikasi ere, asko ikasi dut.

Eta kendu?
Denbora, baina denbora kendu ordez, inbertsio bezala bizi dut. Eman gehiago egin dit egia esan, kendu baino. Bestela ez nuke iraungo.

Kilometroak bi hitzetan...
Euskararen topagunea.

TOLOSA
Hipermerkatua

Iurrea auzoa, z/g

Tel.: 943 67 09 00

EROSKI

zurekin

KULTURAZ JANTZI DUGU IZASKUN

Izaskun Kultura izenekoa burutu dugu ikasturtea bukatu aurretik. Izaskungo festekin bat eginez, kultur ekitaldiak izan ditugu bertan, bai eta ibilaldi berezi bat. Oraingo honetan ere, ezinbestekoa izan da sortzaile eta eragileen babesa.

Izaskun auzoko festak abiatzeko Izaskun Kultura izan genuen. Ikasturtea bukatzeko egindako ekitaldia izan zen: komunitatea bildu eta merezitako opor egunak izan aurretik, elkarrekin egun pasa egiteko aukera izan genuen.

Izaskundik bertatik mendi ibilaldi bat abiatuta hasi genuen eguna eta, ibilaldian zehar, hainbat sorpresa izan genituen. Irene Caminosek erakustaldia egin zuen ibilaldiaren hasieran eta Loatzo musika eskolako musikariak edota Numen taldeko dantzariak ere atera ziren bidera. Pintxoez gozatzeko aukera izan genuen, era berean. Bazkaltzeko bildu ginen beste behin, eta eguna musikari bikainekin amaitu genuen; Xantos eta Joxemari Agirrezabala, Jon Ijurko eta Andoni Ollokiegirekin gozatu genuen.

Urriaren 2a geroz eta gertuago dugu, eta egun bereziaren antolakuntzan murgiltzen hasiak bagara ere, potoloena iristear dago. Hori baino lehen komeni da atseden hartzea, indarberrituta iritsiko da ikasturte berria, eta baita Kilometroak jaia ere.

ETA HAU EZ DA HEMEN AMAITU

Badakigu nekatuta zaudetela, astero-astero, asteburu askotan izan ditugu ekimenak, eta ekimen horiek zuei esker egin ahal izan ditugu. Boluntario, eragile eta laguntzaileen zerrenda oso luzea da, eta hau ez da amaitu. Urriaren 2ko jai egunari begira jarri gara eta egun horretan egiteko asko partekatu beharko ditugu.

Eskerrak eman besterik ezin dugu egin. Eskerrik asko benetan emandako babes eta laguntzarengatik. Eskerrik asko emandako hauspoarengatik. Eta eskerrik asko amesten hasi ginen erokeria hau errealitate egiten lagundu diguzuelako. Ez da erraza horrenbeste urtetan egin dugun egun bakarreko jai eredu trinkoari iskin egitea, eta ez da erraza eredu berri bati ateak irekitzea. Baina ari gara, guztiak batera ari gara, elkarrekin.

Datozen hilabeteetan ere izango ditugu zereginak, herria egingo dugu, auzolanean. Zuek zarete Kilometroak urteko protagonistak, eta zuen laguntzari esker herriko haur eta gazteek proiektu berrindartu bat izango dute.

Eskerrik asko!

DATOZEN HITZORDUAK

EKAINA

Ekainak 17. Sormenetik Gurera ekimena gazteekin, Galtzaundi Euskara Taldearekin batera.

ABUZTUA

Abuztuak 23-27. Irribarra jangela Bizi Nahi elkartean.

IRAILA

Irailak 18. Dastatu Baratza: dastatzeak, bazkaria azalpenekin...
Irailak 24 eta 25. Pipar Ibilbide Bizia.
Irailak 25. Ikasbide bazkariak.
Irailak 28. Galtzakomik Irribarra komiki lehiaketaren aurkezpena, udalarekin eta Galtzaundirekin.

URRIA

Urriak 2. Kilometroak.
Urriak 31. Gau Beltza eta eskertze ekitaldia.

ZUBELZU
PIPARRAK

Apatta poligonoa, Baratzondo, 2 · Ibarra
943 575 480 · info@zubelzupiparrak.com

zubelzupiparrak.com

barrako
merkatarien elkartea

Egin zure erosketak Ibarran!

- LEINA ESTETIKA ZENTROA
- PELUQUERIA LM
- KARLATZ GARAGARDOTEGIA
- + VISION (OPTICA IBARRA)
- ORAMAHAI MAKIU OKINDEGIA
- IBARRA ALTZARIAK
- BIKOITZ ARRANDEGIA
- BITXORI
- DANON TXOKOA TABERNA
- MAIAL ESTETIKA
- LAOS ILEAPAINDEGIA
- MAPFRE
- JOXE MARI BARRIOLA HARATEGIA
- EKIN FISIOTERAPIA
- OREKA BELARDENDA
- ELDUARAN HORTZ KLINIKA
- URANGA HARATEGIA
- TARUKUTRAKU
- J.BAUTISTA BARRIOLA HARATEGIA
- KIRIBIL ILEAPAINDEGIA
- EGUZKI TABERNA
- GOXOBI
- IBARBURU - COVIRAN
- ERRAZKIN ARTOLA HARATEGIA

KILOMETROetan ondo pasa!

IBARRAKO UDALA

barrako merkatarien elkartea

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO